

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

Samaniegoko udalerriko "Samaniego" izeneko VI 10.022 ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendu kontratua lizitatzea

Samaniegoko udalbatzak, 2019ko uztailaren 12ko osoko bilkuran, udalerrri horretako "Samaniego" izeneko VI 10.022 ehiza esparruaren aprobetxamendua kontratatzeko espedientea onetsi zuen.

Erakunde esleitzaila: Samaniegoko Udala.

Kontratuaren xedea: VI 10.022 ehiza esparruko ehiza aprobetxamendua.

Izapidetzea: premiazkoa.

Prozedura eta balorazio irizpideak: irekia, hainbat esleipen irizpiderekin.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: sei mila (6.000) euro urteko, BEZa barne; gehiago eskainiz hobetu ahal izango da.

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

Behin betiko bermea: esleipenaren ehuneko 5, BEZa aparte.

Agiriak lortzea eta aztertzea: Samaniegoko Udalean, 08:30etatik 14:00etara. Horretarako, zortzi egun natural izango dira iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Eskaintzak aurkeztea: Samaniegoko Udalaren erregistro orokorrean, 08:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo zortzi egunen barruan.

Aurkeztu beharreko agiriak: baldintzen agirian adierazten direnak.

Errentamendu epea: hamar urte, ehiza esparrua onesten duen foru aginduaren egunetik aurrera kontatuta.

Eskaintzak irekitzea: eskaintzak aurkezteko epea bukatu osteko lehen lanegunean, Samaniegoko udaletxean.

Gastuak: esleipendunak ordainduko ditu, klausula ekonomiko-administratiboen agiriaren hamahirugarren klausulan xedatutakoaren arabera.

Kontratazio mahaia: baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren bederatzigarren klausulan izendatutakoa.

Samaniego, 2019ko abuztuaren 6a

Alkatea

MARÍA PILAR GARMENDIA IPARRAGUIRRE